



MARIA KRISTINA ZUBIA
F MAILA

MARIA KRISTINA ZUBIA, Z.G.



Egileak eta data: Jose Eugenio Rivera eta Julio M. Zapata; 1903

Deskribapena

Leku honetan eraiki zen zurezko lehen zubia behin-behineko zurezko beste zubi batekin ordeztu zen, Jose de Goicoak 1893an proiektatua. Geroago, 1903an, bi ertzen artean dauden 88 metroak 20 metroko zabalerarekin gaudituko zituen behin betiko zubia eraikitzeko lehiaketa deitu zen. Lehiaketa hori Jose Eugenio Rivera bide ingeniariak irabazi zuen, eta, ondoren, berak ere eraiki zuen Kurasaaleko zubia, baita beste hamaika metalezko zubi ere. Gainera, hormigoizko sistema berriak erabiltzen hasi zen aitzindarrietako bat izan zen, Julio M. Zapata arkitekto madrildarrarekin batera. Zubia hormigoizko armatuaren erabilera goiztiarraren adibide bat izan zen. 24 metroko argia duten hiru arku ditu eta kalitate handiko estilo eklektikoko apaindurarekin errematatu zen –Vienako Sezesioaren eragina du–. Zubi pilareak kareharrizko harlanduz eraiki ziren arkuaren abiabururaino. Euskarri horiei eutsi zitzaizkien zubiak berriki izan duen berreraikuntzan. Obra horretan egituraren diseinua berritu da, eta forma eskultorikoak literalki berregin dira. Apaingarrien artean pilareen itsasontzi branka itxurako erremateak nabarmentzen dira, baita arkuarteko zeramikak, zokaloetako eta eskudeletako marmol artifiziala eta barandetako eta faroletako burdinurtua ere. Ertzetan Goicoak proiektatutako lau tenpleteak daude, Angel Garcia Diezen multzo eskultorikoak dituztenak –Parisko Alejandro III zubian inspiratuta–. Tenplete horiek sarritutako proiektuak jasotzen zituen bi garaipen arkuak ordeztu zituzten. Zubi pilareen gaineko lau farola handiak eta baoen gainean banatuta dauden beste hamabi farolak Marino Benliurereen lana dira.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babestu gabeko elementuak: ez.
 - B. Elementu edo zati iraunkorrak: muturretako lau tenpleteak.
 - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: babesak, obra zibilaz gain, barandak, luminariak, apaindura multzoak, armariak, estatuatxoak, zubi bularrak eta zubiaren jatorrizko gainerako elementuak hartzen ditu.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.